

## Euskarazko testuak Irakurketa Errazera egokitzeko edo itzultzeko gomendioak

Irakurketa erraza testuak idazteko metodologia bat da, eta irisgarritasun kognitiboaren funtsezko euskarrietako bat da. Irisgarritasun Kognitiboa inguratzen gaituen mundua errazago ulertzea dela ulertzen badugu, esan dezakegu Irakurketa Erraza dokumentuak ulerterrazak egitea dela. Hau hizkuntza guztiei aplikatzen da.



**UNE 153101:2018 EX de lectura fácil. Pautas y recomendaciones para la elaboración de documentos** araua, dokumentu bat Irakurketa Errazera idazteko edo egokitzeko jarraitu beharreko jarraibideak eta gomendioak biltzen dituen araua da.



Arau horiek gaztelaniaren gramatikarako balio dute, baina ez dago jarraibide, arau edo dokumenturik testuak euskarara nola egokitu behar diren azaltzen edo orientatzen duenik.

Bi hizkuntzetan jarraibideak eta gomendioak partekatzen badira ere, garrantzitsua da Irakurketa Errazean euskarazko testuak egokitu eta itzultzerakoan zenbait ideia kontuan hartzea.



Horregatik, OACNAn, Nafarroako Irisgarritasun Kognitiboaren Bulegoan, dokumentu hau egin dugu, gure esperientziaren bitartez arlo honetan lortu ditugun ezagutzetan oinarrituz.

Honako gomendio hauek batez ere **aldez aurretik gaztelaniaz Irakurketa Errazera egokitu diren dokumentuak euskaratzeko** orduan aplikatzen dira, nahiz eta dokumentu bat zuzenean euskaraz idaztea erabakitzen baduzu kontuan hartu beharreko zerbait diren.

Dokumentu bat Irakurketa Errazean itzultzerakoan, oso garrantzitsua da kontuan izatea helburua ez dela euskarazko dokumentua gaztelaniaren berdina izatea eta itzulpena ahalik eta zorrotzena izatea.

**Helburua euskarazko testua ulerterraza izatea da.**



## Ulerterraza da?

Horregatik egin dugun itzulpena ulerterra den edo, aitzitik, zaila den berrikusi behar dugu. Adibidez, esaldi oso luzeak ateratzen direlako, koma askorekin edo deklinabide askorekin.

### Testu originala gaztelaniaz:

Por eso debemos revisar si la traducción que hemos hecho es fácil de entender, o si por el contrario es difícil. Por ejemplo, porque salen frases muy largas, con muchas comas o con muchas declinaciones.

### Euskarazko hitzez hitzeko itzulpena:

Horregatik **berrikusi** behar dugu egin dugun itzulpena **ulerterraza** den edo, **aitzitik**, zaila den. Adibidez, esaldi oso luzeak ateratzen direlako, koma askorekin edo deklinabide askorekin.

Adibide honetan gorriz idatzitako hitzak ulertzen zailagoak direla ikus dezakegu, koma gehiegi daudela eta aditz batzuk gehitzea komeni dela. Hemen egoki aukera bat ikus dezakezu:

### Itzulpen birformatua euskaraz:

Horregatik ziurtatu behar dugu egin dugun itzulpena ulertzeko erraza den edo ulertzeko zaila den. Adibidez, esaldi oso luzeak ateratzen direlako edo koma eta deklinabide asko dituztelako.

**Komen orde z puntuak jarri.**

Itzulpena ulertzen zaila dela uste badugu, baliteke komaren batzuk puntuen orde z jarri behar izatea.

**Texto original en castellano:**

Si consideramos que la traducción es difícil de entender, es posible que tengamos que poner más puntos, ya que al declinar todas las palabras en euskera, las frases ocupan más espacio sobre el papel y eso dificulta la comprensión.

**Euskarazko hitzez hitzeko itzulpena:**

Itzulpena ulertzen zaila dela uste badugu, baliteke puntu gehiago jarri behar izatea, izan ere, euskaraz hitz guztiak deklinatzen direnez, esaldiek leku gehiago hartzen dute paperean eta horrek ulermena zailtzen du.

**Itzulpen birformulatua euskaraz:**

Itzulpena ulertzen zaila dela uste badugu, baliteke puntu gehiago jarri behar izatea. Izan ere, euskaraz hitz guztiak deklinatzen direnez esaldiek paperean leku gehiago hartzen dute eta horrek ulermena zailtzen du

## Hitz zailak azaltzea.

Agian, hitz batzuek ez dute azalpenik behar gaztelaniaz, baina euskaraz bai behar dutela, ez baitira dokumentuaren hartzaile den publikoak egunerokoan erabiltzen dituen hitzak. Izan ere, litekeena da, nahiz eta gaztelaniaz hitz bat erabili ez, bere bizitzan zehar entzun eta erabili izana, eta, aldiz, euskaraz inoiz entzun ez izana.

### Texto original en castellano:

Es posible que en la traducción utilizemos diccionarios o traductores online. Generalmente la sugerencia que nos darán será la traducción a euskera más pura y rigurosa pero esta traducción no siempre es la más fácil de entender.

### Euskarazko hitzez hitzeko itzulpena:

Baliteke itzulpenean online hiztegiak edo itzultzaileak erabiltzea. Eskuarki, emango diguten iradokizuna euskarazko itzulpen garbi eta zorrotzena izango da, baina itzulpen hau ez da beti ulertzen errazena.

### Itzulpen birformulatua euskaraz:

Izan daiteke itzulpenean online hiztegiak edo itzultzaileak erabiltzea. Orokorrean, emango diguten iradokizuna euskarazko itzulpen garbi eta zorrotzena izango da. Baina itzulpen hau ez da beti ulertzen errazena.

**Iradokizun** bat proposamen bat da.

## Aditza esaldiaren amaieran.

Ahal den neurrian, aditzek esaldiaren amaieran joan behar dute, egitura honek ulermena errazten baitu.

### Texto original en castellano:

Por eso es necesario que la revisemos, ordenemos las frases, pongamos más puntos o sustituyamos algunas palabras por otras más sencillas o habituales.

### Euskarazko hitzez hitzeko itzulpena:

Horregatik, berrikusi egin behar dugu, esaldiak ordenatu, puntu gehiago jarri edo hitz batzuen ordezt sinpleagoak edo ohikoagoak jarri.

### Itzulpen birformulatua euskaraz:

Horregatik testua ziurtatu, esaldiak ordenatu, puntu gehiago jarri edo hitz batzuen ordezt beste hitz sinpleago edo ohikoago batzuk jarri behar dugu.

**Azalpenak hobeto esaldi desberdin batean.**

Gaztelaniazko Irakurketa Errazeko dokumentuetan, esaldian bertan hitz zailen azalpenak edo adibideak jasotzen dira, adibidez, "es decir" batekin. Euskarazko dokumentuan, aldiz, hobe da azalpen hori beste esaldi batean jartzea, bestela oso esaldi nahasiak eta ulertzeko zailak sortzen baitira.

**Texto original en castellano:**

Es posible que, en la traducción, utilizemos algunas herramientas, es decir, diccionarios o traductores online, para agilizar el trabajo.

**Euskarazko hitzez hitzeko itzulpena:**

Baliteke itzulpenean tresna batzuk erabiltzea, hau da, online hiztegiak edo itzultzaileak, lana arintzeko.

**Itzulpen birformulatua euskaraz:**

Baliteke itzulpenean lana arintzeko tresna batzuk erabiltzea.  
Hau da, online hiztegiak edo itzultzaileak erabiltzea.

**Online itzulpen-tresnak.**

Baliteke itzulpenak egiterako orduan lana arintzeko tresna batzuk erabiltzea, adibidez, online hiztegiak edo itzultzaileak. Eskuarki, egingo diguten proposamena euskarazko itzulpen garbi eta zorrotzena izango da, baina itzulpen hau ez da beti ulertzen errazena. Horregatik testua berrikusi, esaldiak ordenatu, puntu gehiago jarri edo hitz batzuen ordez beste hitz sinpleagoak edo ohikoagoak jarri behar ditugu.

**Texto original en castellano:**

Es posible que,  
en la traducción,  
utilicemos algunas herramientas,  
es decir, diccionarios  
o traductores online,  
para agilizar el trabajo.  
Generalmente,  
la sugerencia que nos darán  
será la traducción a euskera  
más pura y rigurosa,  
pero esta traducción  
no siempre es la más fácil de entender.  
Por eso es necesario  
que la revisemos,  
ordenemos las frases,  
pongamos más puntos  
o sustituyamos algunas palabras  
por otras más sencillas o habituales.

**Euskarazko hitzez hitzeko itzulpena:**

Baliteke itzulpenean  
tresna batzuk erabiltzea,  
hau da, online hiztegiak  
edo itzultzaileak, lana arintzeko.  
Eskuarki, emango diguten iradokizuna  
euskarazko itzulpen  
garbi eta zorrotzena izango da,  
baina itzulpen hau  
ez da beti ulertzen errazena.  
Horregatik, berrikusi egin behar dugu,  
esaldiak ordenatu, puntu gehiago jarri  
edo hitz batzuen ordez  
sinpleagoak edo ohikoagoak jarri.



**Itzulpen birformulatua euskaraz:**

Izan daiteke itzulpenean  
lana arintzeko  
tresna batzuk erabiltzea.

Hau da, online hiztegiak  
edo itzultzaileak.

Orokorrean, emango diguten proposamena  
euskarazko itzulpen garbi  
eta zorrotzena izango da.

Baina itzulpen hau  
ez da beti ulertzen errazena.

Horregatik, berrikusi, esaldiak ordenatu,  
puntu gehiago jarri edo hitz batzuen ordeztu  
hitz sinple edo ohikoagoak jarri behar dugu.



## Doako zer tresna erabil ditzakegu?

Jarraian aipatuko ditugun 2 tresnek aldez aurretik gaztelaniaz Irakurketa Errazera egokitu diren dokumentuak euskaratzeko prozesua erraztu eta arindu egiten dute.



Jarraitu pausu hauek:

1. Kopiatu itzuli nahi duzun testua gaztelaniazko Irakurketa Errazean.
2. Sartu [comita.com](https://comita.com) webgunean eta itsatsi testua.  
Tresna honek esaldi-mozketak ezabatzen ditu, eta horrek hurrengo urratsa errazten du.



3. Kopiatu tresnak sortu duen testua.


- Sartu [Traductor Neuronal](#) webgunean, itsatsi aurreko tresnak sortu duen testua eta klikatu Traducir botoian.



Tresna honetan esaldietan ebakirik ez egotea beharrezkoa da, izan ere, baldin badaude, itzultzaileak ezin du itzulpen zuzena egin.


Horregatik, 2. urratsa egiten ez baduzu, esaldien ebaketa eskuz kendu beharko duzu, eta zeregin horretan denbora gehiago inbertitu beharko duzu.

- Kopiatu itzultzaile tresnak euskaraz sortu duen testua..



6. Word-en, kopiatu testua “Conservar solo texto”. aukerarekin. Horrela, Irakurketa Errazeko dokumentuaren formatua (Arial 12, 1,5-ko lerroartea eta abar) mantenduko da.
7. En Word copia el texto con la opción “Conservar solo texto”. De esta forma se mantendrá el formato (Arial 12, interlineado 1,5, etc) del documento en Lectura Fácil.

Agian, itzulpenean, tresna batzuk erabiliko ditugu, hau da, hiztegiak edo online itzultzaileak, lana arintzeko. Oro har, euskarazko itzulpena izango da emango diguten iradokizuna, garbiagoa eta zorrotzagoa, baina itzulpen hori ez da beti ulertzen errazena. Horregatik, beharrezkoa da hura berrikustea, esaldiak ordenatzea, puntu gehiago jartzea, edo hitz batzuen orde zimpleanoak edo ohikoagoak jartzea.



8. Eskuz, moztu esaldiak Irakurketa Errazaren jarraibideen arabera. Ondoren, berrikusi aurreko gomendio guztiak.



## Dokumentuak euskaraz argitara daitezke Irakurketa Errazaren logotipoarekin?

Egokiena litzateke ulertzeko zailtasunak dituzten aditu talde batek testua euskaraz baliozkotzea. Baina badakigu hau zaila dela, beharrezko prestakuntza jaso duten pertsona gutxik baitakite euskaraz.



Horregatik, euskaraz egokitutako dokumentuen hedapena errazteko, Irakurketa Errazaren logoa jarri ahal izango da, soilik dokumentua aldez aurretik egokitutako beste dokumentu batetik itzuli denean.

Zuzenean euskaraz idatzitako dokumentuetarako, beharrezkoa da adituek baliozkotzea.



## Euskarazko Irakurketa Errazeko testuak idazteko, egokitzeko edo itzultzeko moduari buruzko zalantzak dituzu?

Edozein zalantza argitzeko, jar zaitez harremanetan OACNA-rekin (Nafarroako Irisgarritasun Kognitiboaren Bulegoa):

- [maite.arizaleta@anfasnavarra.org](mailto:maite.arizaleta@anfasnavarra.org) posta elektronikoaren bidez.
- 948 27 50 00 telefonora deituta.